ROKEFORT INTXAUR ETA MAHASPASEN KANAPEA

written by Errezetak



Kanapeak edo gosegarriak. Alako bazkari garrantzitsu bat dugunean bakarrik jaten duguna, batzu egiteko konplexuak, beste batzuk, ordea, errazak.

6 Perts.


Osagaiak:

- 6 Ogi xerra
- 75gr Gurina
- 75gr Rokefort gazta
- 6 Intxaurra
- 30 Mahaspasa
- Kuminoa
- Piperbeltza
- Perrexila
- Kaiena

Denbora: 15 min.

Prestaketa:

1.Intxaurrak kaskatu eta erditik zaitu. Perrexila garbitu eta fin-fina moztu. Gurinarekin lan egin, tonu krematsua hartu arte.



2.Rokefort gazta sardexka batekin zapaldu, gurina, mahaspasak, kuminoa (nahi adina) eta kaiena (txiki-txiki mozturik, bi ale) gehitu. Multzoa ongi nahastu. Ogi xigortuaren gainean pasta jarri eta honen gainean intxaur erdi bat.

